



FRANTZIAKO ERREPUBLIKA

BAIGORRIKO HERRIA

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA 2023ko OTSAILAREN 27a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, otsailaren hogeita zazpian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, Jaun Auzapezak deiturik. Dei hori 2023ko otsailaren 20an afixatua izan zen eta 2023ko otsailaren 20an posta elektronikoz igorria. Auzapeza bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzaileak	14	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, DEGUIRAUD Hélène anderea eta CURUTCHARRY Antton jauna.

Hor ez zirenak baina boterea emana zutenak: OLÇOMENDY Betti jaunak COSCARAT Jean Michel jaunari emana zakon

Bilkurako idazkaria: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea :

- *Herriaren iritzia Tokiko Hirigintza Planaren 1. aldaketa sinplifikatuaz*
- *Euskal Elkargoarekin hitzarmena izenpetzea helbideratzea eguneratzen laguntzeko*
- *Etxe hutsei bigarren etxebizitzaren gaineko bizitegi zerga ezartzea*
- *Monaco jaunaren ordainketaren finkatzea bere etxean elektrika zabaltzeko*
- *Partaidetza hitzarmenaren izenpetzea Euskal Elkargoarekin bide seinaleen eskuratzearen kariatara*
- *Funts Berdeetarako dirulaguntzaren galdatzea Postako apartamenduaren berritze energetikorako*
- *Euskal Elkargoari dirulaguntza galdegitea eta Palulos onespeneraren galdatzea Postako apartamenduaren berritze energetikorako*
- *Raphanel anderearen ordainketa moldeen eta zenbatekoaren finkatzea bere etxeari lotu bide obretarako*
- *Gai orotarik*

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2023ko urtarrilaren 20ko bilkuraren bilduma onartu du.

1-2023-7 DELIBEROA - HERRIAREN IRITZIA TOKIKO HIRIGINTZA PLANAREN 1. ALDAKETA SINPLIFIKATUAZ – 2.1 NOMENKLATURA

2021eko abenduaren 18ko deliberoaren ondotik, Euskal Hirigune Elkargoko Kontseiluak Baigorriko Tokiko Hirigintza Planaren 1. aldaketa sinplifikatuaren prozedura abiatu du:

- UA9, UB9, UC9, UE9 eta 1AU9 artikuluen idazketa argitzeko, hirigintza agirien ikerketa errazteko gisan
- 1AUY14 artikulua arauzko neurrien aldatzeko, Saneamendu Eskema Nagusiaren helburuetara egokitzeko gisan
- Dokumentu grafikoa aldatzeko, Hirigintza Kodeko L.151-16 artikulua aplikatuz aurkitu merkataritza aniztasunaren lerrokatzea luzatuz.

Aldaketa sinplifikatu proiektu hori Hirigintza Kodeko L.153-45 artikulua eta ondokoek zehaztu prozeduraren barne dago.

Proiektu hori jakinarazi zakote Ingurumen Aginterako Eskualde Misioei, kasuz kasu ikertzeko, eta Antolaketarako Partaidetza Proiektu (APP) hauei, haien iritzia emateko: Pirinio Atlantikoetako jaun prefetari, suprefetari eta LIDZeko zuzendariari, Baigorriko jaun auzapezari, Eskualdeko Kontseiluko, Departamenduko Kontseiluko, Ipar Euskal Herriko & Saignanxeko LuKE Sindikatu Mistoko, Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuko, Euskal Hirigune Elkargoko, Merkataritza eta Industria Ganberako, Ofizialeen eta Eskulangintzaren Ganberako eta Laborantza Ganberako jaun lehendakariei, eta Eskualdeko Osasun Agentziaren andere lehendakariari.

2022ko urriaren 24an, Ingurumen Aginterako Eskualde Misioak bere webgunean jakinarazi zuen ez zela iritzirik izan Hirigintza Kodeko R104-25 artikulua zehazten duen 3 hilabeteko epean aldaketa proiektuaren ingurumen ebaluaziorako.

Proiektu horrek 3 APPren iritzia errezipitu du:

- 3 iritzi horietan ez da ohar berezirik: Eskualdeko Osasun Agentziaren 2022ko uztailaren 28ko iritzia; LuKE Sindikatu Mistoaren 2022ko irailaren 8ko iritzia eta Departamendu Kontseiluaren 2022ko urriaren 11ko iritzia.

Hirigintza Kodeko L 153-47 artikulua xedapenen eta 2017ko apirilaren 8ko Elkargoko Kontseiluaren oinarri-erabakiaren arabera, proiektua publikoaren esku utzi da 2022ko abenduaren 19tik, astelehena, 2023ko urtarrilaren 20ra barne, ortziralea.

Publikoari jakinarazi zaizkio proiektu horren helburuak eta esku uzte moldeak:

- esku utzi baino lehenago, tokiko prentsaren bidez (La République des Pyrénées egunkaria eta Frantziako Sud-Ouest: 2022ko abenduaren 7koak)
- esku utzi baino lehen eta esku uzte denbora guzian, afixa baten bidez Euskal Elkargoaren egoitzan (Foch etorbidea, 15, Baiona) 2022ko abenduaren 7tik goiti, baita ere Baigorriko Herriko Etxean (eta herriko zenbait lekutan) 2022ko abenduaren 5etik goiti.

Esku uzte denbora guzian:

- publikoak dosierra irakurri ahal izan du paperean, Baigorriko Herriko Etxean baita ere Euskal Elkargoaren egoitzan, bulegoko tenoreetan; numerikoan Euskal Elkargoaren webgunean (<http://www.communaute-paysbasque.fr>);
- publikoak oharrak egin ahal izan ditu idatziz, Baigorriko Herriko Etxean eta Euskal Elkargoko egoitzan zeuden paperezko erregistroetan (erregistro bat bakoitzean).

Epe horretan, publikoak ez du oharrak idatzi zegokien erregistroetan.

Gorago zehaztu dena ikusirik, ez da Baigorriko hTHPren 1. aldaketa sinplifikatuaren proiektua zuzendu beharrik izan APPEk kontsultatu ondoan eta publikoaren esku ezarri ondoan.

Euskal Hirigune Elkargoa Baigorriko hTHPren 1. aldaketa sinplifikatua onartzekotan dago. Aitzinetik Herriko Kontseiluaren iritzia nahi luke.

2023ko otsailaren 27ko txostena

Herriko Kontseiluari proposatu zako:

- Baigorriko hTHPren 1. aldaketa sinplifikatuaren proiektuari buruzko aldeko iritzia ematea, aurkeztua den bezala;

Txostengilearen aurkezpena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak erabaki du:

Euskal Hirigune Elkargoak finkatu duen 1. aldaketa sinplifikatuaren dosierrari buruzko aldeko iritzia EMATEA

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

2.2023-8 DELIBEROA – EUSKAL ELKARGOAREN ZERBITZU KOMUN MUTUALIZATUARI KIDETZEA HELBIDERATZEA EGUNERATZEKO LAGUNTZA UKAITEKO ETA HITZARMENAREN IZENPETZEKO - 9.1 NOMENKLATURA

Aitzin adierazpena eta testuingurua

Desberdintzeari, deszentralizazioari eta deskontzentrazioari buruzko 2022ko otsailaren 21eko 2022–217 legeak onartzen du herrien eskumena helbideratzeari dagokionez. Behartzen ditu zirkulazioari irekiak diren bide publikoak eta pribatuak izendatzea eta zenbakitzea. Helbideratze hori Tokiko Helbide Basearen formatu estandarizatuan zehaztua da. Herri bakoitzaren Tokiko Helbide Baseak Nazio Helbide Basea elikatzen du.

Helbideratzearen zehaztea eta eguneratzea erronka nagusia da zerbitzu eta politika publikoak behar bezala eramateko, baita ere lurraldeko herritarren eta enpresen eguneroko bizitzarako. Nazio Helbide Basea, Open Data moldeko erreferentzia basea da, eta helbideak erabiltzen dituztenek erabiltzeko egina da: sokorriak, Posta, erakunde publikoak eta enpresa pribatuak, etab. Helbideak erreferentzia base bakar horretan eguneraturik atxikiz agiri administratiboen gardentasuna eta sinplifikazioa errazten da.

Euskal Hirigune Elkargoak baitaki helbideratzea inportantea dela, erabaki du bere lurraldeko herriak laguntzea sostengu metodologikoaren eta teknikoaren bidez herri-eskumen horren burutzeko.

Bereziki, Euskal Hirigune Elkargoak laguntzen ditu hala nahi izan duten herriak haien helbideratzea apailatzeko eta Nazio Helbide Basean hedatzeko Tokiko Helbide Basearen formatuan.

Euskal Elkargoko herri gehienek nahi izan dute laguntza hori ukan. Helbideratzearen historiaren eta herriaren handitasunaren arabera guti edo aski handia eta konplexua den lanaren ondotik, lehen helbideratze bat finkatu da eta hedatu.

BAIGORRIKO herriak bere helbideak hedatu ditu Nazio Helbide Basean 2020ko apirilaren 1ean.

Helbideratzea aldatzen baita bide eta eraikin berrien eraikuntzen arabera, herriak behar du helbideratzearen eguneraketa zorrotza eta jarraikia egin, hark baitu horren eskumena.

Herriak laguntzeko helbideratzearen segimenduan eta eguneratzean, Euskal Elkargoak proposatzen du helbideratzearen eguneratze zerbitzu komun baten sortzea.

Zerbitzu horren eskaintzeko tresna bat behar da, Euskal Hirigune Elkargoko Lurralde Informazio Zerbitzuak finantzatua eta garatua, eta langile baten mutualizazioa ere bai helbideratzean teknikoki eta metodologikoki laguntzeko. Tresnaren eguneratzearen sorkuntza eta hedapena herriko langile batek bermatuko ditu, eta langilea formatua eta lagundua izanen da.

Helbideratzearen eguneratzeko zerbitzu komunaren eginkizunak:

Helbideratzearen eguneratzeko zerbitzu komunak molde jarraikian bermatzen du herrien laguntza teknikoa eta metodologikoa helbideratzea burutzeko:

- **Gaitasun metodologikoa:**
 - o azken urteetan finkatu eta lehen helbideratzearen bertsiorako lagunduak ziren herri guzientzat molde harmonizatuan aplikatu helbideratze doktrinaren eguneratzea; hitzarmen honen bidez lagunduak diren herri guzietan banatu gida-liburuxka metodologikoaren

- eguneratzea; arauen esplikazioa eta lurraldeko hiru hizkuntzen (euskara, frantsesa, gaskoia) erabileran laguntza;
 - o zaintza nazionala: helbideratzearen bilakaera juridikoaren eta teknikoaren segimendu aktiboa, solaskide lehenetsia, nazio-eragileek ezagutua; helbideratze sare teknikoetan parte hartzea herriak laguntzen dituzte beste elkargoekin (esperientziaren bilana, praktika egokiak, adituei dei egitea)
- **Gaitasun teknikoa:**
 - o eguneratze tresnaren funtzionamendu onaren eta Nazio Helbide Basean hedatzeko prozesuaren bermatzea APIren bidez.
 - o tresnaren bilakaera teknikoa beharren arabera,
 - o teknikak, kontratuak eta finantzek ahalbidetzen duten neurrian, Euskal Elkargoak eskura utzi helbideratzearen eguneratze tresnaren interoperabilitatearen lantzea herriek erabili beste programa informatikoekin eta tresnekin (bereziki eraikitze baimenen kudeaketa).
 - **Herrien formakuntza eta tresnaren erabiltzaile kontuen administrazioa** (molde jarraikian eta herrietako langileen aldizkatzea kontuan hartuz)
 - **Laguntza teknikoa eta metodologikoa molde jarraikian** formakuntzaren ondotik (laguntza sistema molde jarraikian herriak hala galdaturik, gida-liburuxken sortzea eta aberastea, tutoriala, FAQ)
 - **Helbideratzearen eragileen arteko proiektuen koordinaketa** (SSDZ, DGFIP, Fibre64, Euskal Elkargoko hizkuntza zerbitzua, Euskal Elkargoan berean helbideak erabiltzen dituztenak (hondakinen bilketa, zergak, ura, LEB), herriak haien artean, herriarteko edo mugako bideen harmonizatze)

Zerbitzu komunaren gidaritza helbideratze proiektuaren ardura duen Lurraldeko Informazio zerbitzuburuaren egitekoa da. Herriek dute eguneratzea bermatzen, beren eskumenen kariatara.

Erabiltzaile kontuen kudeaketa eta eguneratze tresnaren erabilerarako formakuntza langile mutualizatuak bermatzen baitu, Euskal Elkargoak kide diren herriei kitorik utziko die bere tresna estandarra elkargoko SIG datuen oinarria kontsultatzeko, eta erreferentzial generikoak ere utziko dizkie (aireko eta satelite bidezko argazkiak, mapa hutsak, zatikako kadastrak).

Langile mutualizatu horrek ez ditu egiten ahalko herriko datuei buruzko formakuntzak, laguntza bereziak, edizioa edo integrazioa. Zerbitzu horiek berantago sortzen ahalko den SIG zerbitzu komun orokorragoak eskaintzen ahalko ditu, baina hori oraino finkatzekoa da mutualizazio gida-eskemaren kariatara.

Kidetza hitzarmena 2023ko urtarrilaren 1az geroztik

2023ko urtarrilaren 1az geroztik, herriek helbideratzearen eguneratze zerbitzu komunari kidegoko ordaindu behar dute.

Hitzarmen bat beharrezkoa da herriaren eta Euskal Elkargoaren elkarrenganako engaiamendua finkatzeko helbideratzearen eguneratzeko.

Hitzarmenaren iraupena mugagabea da, eta aldatu daiteke gehigarri baten bidez, parte bakoitzak ontzat eman ondoan. Parte bakoitzak badu kontratua unilateralki ezeztatzeko eskubidea.

Herria noiznahi kidegoko daiteke, hark eskaturik. Urtesaria urte baterako da eta urte guzietan aldatu daitezke herriko biztanleria kopuruaren arabera, sekula jende kopuru tartez aldatzen bada.

SIG zerbitzu komun mutualizatuaren helbideratzearen eguneratzea barne duten Hego Lapurdiko Lurralde Eremuko 12 herrien kasuan, prezioak berezitasun hori kontuan hartuz finkatuak dira eta arabera egokituak. Laguntza metodologikoa eta proiektuaren koordinazioa baizik ez du barne hartzen.

Taldea	Biztanle kopurua	Herri kopurua	Hego Lapurditik kanpoko herri kopurua	Hego Lapurdi eremuko herri kopurua	Zerbitzuaren banakako prezioa urteko, Hego Lapurditik kanpo	Zerbitzuaren banakako prezioa urteko, Hego Lapurdin
C 1	10 000 à 60 000	6	3	3	400 € ¹	350 €
C 2	5 000 à 9 999	9	7	2	900 €	225 €
C 3	2 000 à 4 999	15	11	4	750 €	188 €
C 4	500 à 1 999	39	36	3	500 €	125 €
C 5	200 à 499	51	51		175 €	
C 6	0 à 199	38	38		75 €	
OROTARA		158	146	12		

(Herriko biztanleria da kontuan hartua)

Ikusirik desberdintzeari, deszentralizazioari eta deskontzentrazioari (3DS legea) buruzko 2022ko otsailaren 21eko 2022–217 legea, onartzen duena edozein neurritako herriren eskumena helbideratzeari dagokionez, eta leku eta bide pribatuak eta publikoak izendatzeko eta zenbakitzeko betebeharra;

Ikusirik Publikoaren eta Administrazioaren arteko harremani buruzko Kodearen L. 321–4 artikulua, bideen izendatzeko eta etxeen eta beste eraikinen zenbakitzeko datuak herrien esku utzi erreferentzia dira;

Ikusirik Errepublika Numerikoaren aldeko 2016ko urriaren 7ko 2016-1321 legea, Nazio Helbide Basea Errepublikaren 9 erreferentziatarik bat dela identifikatzen duena, lizentzia irekia duena 2020ko urtarrilaren 1az geroztik, eta gorago aipatu 3DS legean helbideen erabiltzaileen erreferentzia oinarria dena;

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, bereziki L.5211-4-2 artikulua, erraten duena eskualdatu eskumenez gain, bere zerga sistema duen herriarteko kooperazio erakunde publiko batek eta kide diren herri batek edo batzuek zerbitzu komunak har ditzaketela;

Ikusirik 2022ko abenduaren 10eko Elkargoko Kontseiluko 39. aipagaia, helbideratzearen eguneratzeko laguntza zerbitzu komun mutualizatuari buruzkoa, aho batez onartua;

Ikusirik atxikirik den hitzarmena Euskal Hirigune Elkargoarekin, helbideratzearen eguneratzeko zerbitzu komunari kideatzeko

Herriko Kontseiluari galdegin zako:

- **ONARTZEA helbideratzearen eguneratzeko zerbitzu komun mutualizatuari kidezea** atxikirik den hitzarmenaren arabera. Honek elkargoko tresna numerikoa eskainiko du eta laguntza tekniko eta metodologikoa eta koordinazioa bermatuko duen langile mutualizatua ere, kide den herri bakoitzaren biztanleriaren araberrako ordainsariaren truk, hots, **500 €**.
- **BAIMENDU DU jaun auzapeza** Euskal Hirigune Elkargoarekin hitzarmen horren izenpetzera.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

3- 2023-09 DELIBEROA - ETXE HUTSEI BIGARREN ETXEBIZITZEN ETA BIZITEGI NAGUSI EZ DIREN EGOITZA MUBLATUEN GAINEKO BIZITEGI ZERGA EZARTZEA – 7.2 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Zergen Kode Nagusiko 1407 bis artikuluko xedapenak aurkeztu ditu, Herriko Kontseiluari parada ematen diona etxe hutsei bigarren etxebizitzaren eta bizitegi nagusi ez diren egoitza mublaturaren gaineko bizitegi zerga ezartzea.

Oroitarazi ditu egoitzak zergapean ezartzeko baldintzak eta etxeak hutsak direla deklaratzeko irizpideak, eta zehaztu du zerga ezarria baldin bada etxea hutsa ez zelarik hala deklaraturik, araberrako zerga arintzea herriaren gain izanen dela.

2023ko otsailaren 27ko txostena

Ikusirik Zergen Kode Nagusiko 1407 bis artikulua, eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak

- ✓ **ERABAKI DU etxe hutsei bigarren etxebizitzaren eta bizitegi nagusi ez diren egoitza mublatuen gaineko bizitegi zerga ezartzea**
- ✓ **ARDURA EMAN DAKO** jaun auzapezari erabaki horren jakinarazteko prefetura eta zerga zerbitzuei

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

4- 2023-10 DELIBEROA – BT SAREAREN LUZATZEA MONACOREN ETXEAN - 21EX121. AFERA – HERRI PARETAREN ORDAINKETA – 7.10 NOMENKLATURA

Gai berari buruzko 2021/12/17ko 84. deliberoa ezeztatzen du eta ordeztzen

Jaun auzapezak 2021eko azaroaren 17ko deliberoa irakurri du, Pierre Monaco jaunaren etxea hornitzeko BT sarearen luzatzeari buruz. Herriaren parte 12 040.56 €-koa zen.

Obren zenbatekoa orotara 38 183.85 €-koa da 42 803.27 €-ren ordeztu. Jaun auzapezak jakinarazi du obra horiek egiteko herriaren behin betiko gastua

8 175.33 €-koa dela hastapeneko 12 040.56 €-en ordeztu.

Hori dela eta, 2023/02/21eko gutunaren bidez Pierre Monaco jaunak hitz eman du herriari 8 175.33 € itzultzea.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

ONTZAT EMAN DU Pierre Monaco jaunak **8 175.33 €** ordaintzea bere etxeko elektrika sarea luzatzeko herriaren parte itzultzeko.

ARDURA EMAN dio jaun auzapezari dagokien irabazien agiria egitea

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

5. 2023-11 DELIBEROA - PARTAIDETZA HITZARMENAREN IZENPETZEA EUSKAL ELKARGOAREKIN BIDE SEINALEEN ESKURATZEAREN KARIETARA – 5.7 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du Euskal Herriko Mendi Elkargoen Batasunak (EHMEB) eta Euskal Hirigune Elkargoak egin Praktika Egokien Gida-liburuxka, eta seinaleetika ahal bezain harmonizatuaren inportantzia euskal mendian.

Horretarako, proposatu du hitzarmen baten izenpetzea herriaren eta Euskal Hirigune Elkargoaren artean, azken honek herriarentzat eta herriaren izenean seinaleetika eskura dezan, Merkatu Publikoen Kodearen arabera.

Herriko Kontseiluari hitzarmen proiektua irakurri dako

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONARTU DU** hitzarmen proiektua

2023ko otsailaren 27ko txostena

- **GALDATU DAKO** jaun auzapezari atxikirik den hitzarmenaren izenpetzea

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 14
 Bozkatu dutenen kopurua: 11
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOA(K): 4

6.2023-12. DELIBEROA- POSTAKO 1. ESTAIKO APARTAMENDUAREN BERRITZE ENERGETIKOA - FUNTS BERDEETARAKO DIRULAGUNTZAREN GALDATZEA – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du beharrezkoa dela obrak egitea Postako 1. estaiko apartamenduan. 2022ko abenduan erosi zen eraikina. Berina bakarreko leihoak behar dira aldatu berina bikoitzeko leihoak ezartzeko, kanpoko murrak eta teilatupea isolatu, fluxu bakuneko aireztapen mekaniko kontrolatua ezarri, bero-ponpa berogailuekin eta ur-berogailuarekin.

Elektrika muntadurak eta garbigela eta komunak ere aldatu behar dira, tindu eta lauza obrak egin.

Jaun auzapezak zehaztu du ikerketa termikoa egin dela irabazi termikoa ebaluatzeko obrak egin ondoan.

Jaun auzapezak irakurri ditu estimazio-aurrekontuak eta proposatu dirulaguntza eskaera bat egitea FUNTS BERDEEN karietara. FUNTS hori lurraldeko elkargoentzat da, beren trantsizio ekologikoa zalutzen laguntzeko.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONARTU DU** obren aurrekontuen zenbatekoa (98 069.93 € BEZa gabe), ikerketa termikoaren aurrekontuaren zenbatekoa (800.00 €) eta planoen aurrekontuaren zenbatekoa (250.00 € BEZa gabe)
- **ERABAKI DU** Postako 1. estaiko apartamenduan obra energetikoak egitea
- **APAILATU DITU** obra horietarako beharrezkoak diren kredituak
- **GALDATU DU** FUNTS Berdeetarako dirulaguntza 2023. urterako, berritze energetiko obrak egiteko.
- **ONARTU DU** atxikirik den finantzamendu plana

GASTUAK	ZENBATEKOA (BEZa gabe)	IRABAZIAK	ZENBATEKOA
Obrak	98 069.93 €	BLED-TISD	39 679.97 €
Ordainsariak	1 130.00 €	Euskal Hirigune Elkargoa	10 000.00 €
		Departamendua	19 000.00 €
		Autofinantzamendua	20 519.96 €
		Estatua-Funts Berdeak	10 000.00 €
OROTARA BEZa gabe	99 199.93 €	OROTARA BEZa gabe	99 199.93 €

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 14
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOA(K): /

DELIBEROA - PALULOS ONESPENAREN GALDATZEA POSTAKO APARTAMENDUAREN BERRITZE ENERGETIKORAKO - gibelatua

2023ko otsailaren 27ko txostena

7-2023-13 DELIBEROA - RAPHAEL ANDEREAREN ORDAINKETA MOLDEEN FINKATZEA BERE ETXEARI LOTU BIDE OBRETARAKO – 7.10 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak oroitarazi du bide obrak egin direla Legasanean Raphanel anderearen baimena lortu ondotik.

2022ko azaroaren 9ko gutunaren bidez, Raphanel andereak hitzematzen zuen Altxor Publikora ordaintzea 8 921.10 € BEZa gabe, hots, 10 705.32 € BEZa barne.

Jaun auzapezak zehaztu du herriak irabazi agiri bat eginen duela eta nahi duela, beharrezkoa izanez gero, Altxor Publikoak plantan ezarri ordainketa egutegi bat.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONARTU DU 10 705.32 €-ko (BEZa barne)** irabazi agiria egitea, baita ere, behar izanez gero, ordainketa egutegi baten plantan ezartzea

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

1. AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

Jendarmeriaren alokatze kontratuaren 2023ko urtarrilaren 25eko gehigarriaren izenpetzea

2. GAI OROTARIK

Garaziko ikastolak galdatu herri prezio finkoaren ikertzea
IKKEren galdearen ikertzea (herriak kantinako gastuetan duen parte hartzearen emendatzea)
Herriko Etxeko plazako eremu publikoa okupatzeko zergaren zenbatekoak
Bilketa-egoitza baten prestatzeko galdearen ikerketa
Osasun etxearen alokatze kontratu berria

Bilkuran hartutako deliberoak 7tik 13ra zenbakituak dira.

Hor ziren kideen zerrenda: ARANGOITS Isabelle anderea BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, DEGUIRAUD Hélène anderea eta CURUTCHARRY Antton jauna.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izenpedura:</u>